

GETXO

EUROPAKOMUGIKORTASUNASTE SEMANA EUROPEA DELA MOVILIDAD

IRAILAK 16 - 22

EZINBESTEKOA
DA JARDUERETAN
IZENA EMATEA



#SEM2021



Getxo
bizi ezazu

Ingurumena
Medio Ambiente

Mugikortasun Iraunkorraren Astea ospatuko dugu irailaren 16tik 22ra. Garraio publikoak, bizikletak eta oinezkoek lehentasuna izango dute zazpi egun horietan, beraiek baitira isuri txikiko mugikortasun osasungarria, eraginkorra eta eskuragarria lortzeko ezinbesteko protagonistak. Neurri horiek, alabaina, onuragarriak izango dira herritar guztientzat.

Aurtengo gaia **mugikortasun jasangarria, osasungarria eta segurua** izango da, **“Zure osasunaren alde, mugit zaitez modu jasangarrian”** lelopean. Asmo horrekin, **Getxoko Udalak** jarduera ugari antolatu ditu herritarrek modu aktiboan parte har dezaten eta, horrela, osasuna hobetu, ingurumena zaindu eta kutsadura akustikoa eta atmosferikoa murrizten laguntzeko.

Hiriguneetan oinez eta bizikletaz ibiltzeko jarduerak nabarmenduko dira aurtengo edizioan, ohitura osasungarri horiek sustatzeko xedearrekin. Alde horretatik, patinete- eta bizikleta-ibilbideetan, bigarren eskuko azoka

batean edo bizikletak konpontzeko tailer batean parte hartzeko aukera izango dugu, besteak beste.

Halaber, kirola, osasuna eta ingurumenaren zaintza uztartzen dituen proposamen berri batez gozatu ahal izango dugu familiaretan. Plogging Getxo jarduera aire zabalean ariketa fisikoa egitean datza... hondakinak biltzen ditugun bitartean.

Gainera, irailaren 19an (larunbata) ospatzen den **“Autorik gabeko eguna”** dela-eta, haur eta familientzako hainbat jarduera antolatu ditugu Getxon. Era berean, hainbat elkartek, GKEk eta enpresak ekimenarekin bat egingo dute jarduera askoren bitartez; besteak beste, bide-segurtasuneko zirkuituak, bizikletentzako oztopo-zirkuituak, gimnasia erritmikoa, patinajea, hockeya, gurpil-aulkiei egokitutako zirkuituak eta abar. **Ez hutsik egin! Zure zain egongo gara!**

OSTIRALA 17
ALGORTAKO
GELTOKIA PLAZA
LARUNBATA 18
AREETAKO
GELTOKIA PLAZA



BIZIKLETA-AZOKA

16:00 - 20:00

Bizikletak edo mugikortasun jasangarriarekin lotutako bestelako objektuak erosteko aukera izango duzu (irristailuak, patineteak, trizikloak, osagarriak...) prezio ezin hobeetan. 350 eurotan ezarriko da gehieneko prezioa. Salgaien jabeek erabakiko dute salmenta-prezioa. Ekimen honen helburua Getxon bizikleten erabilera eta berrerabilera sustatzea da.

ANIMA
ZAITEZ
ARIKETA
EGITERA ETA
INGURUMENA
ZAINTZERA!



PLOGGING GETXO

LARUNBATA 18 - 10:00 - 12:00
AIXERROTAKO ERROTA

Plogging delakoa ariketa fisikoa aire zabalean eta hondakin biltzeko jarduerak dira.

Arropa eroso jantzea gomendatzen dizugu. Segurtasun eta higiene arrazoiengatik, parte-hartzaileek eskularruak eta poltsa bana jasoko dituzte, aurkitutako hondakinak bertan botatzeko.

www.getxo.eus/eu/medio-ambiente/movilidad-getxo/movilidad

MUGIKORTASUN ASTEAREN JARDUERAK

OSTEGUNA 16 TREBETASUN -ZIRKUITUA BIZIKLETAZ

18:00 - 20:00
AREETAKO GELTOKIA PLAZA

Bizikletaz hainbat maniobra menderatzeko trebetasun-zirkuitua, **Punta Galea Txirrindulari Elkartearen** eskutik. Gainera, **bizikleta elektrikoak** probatzeko aukera izango dugu.



OSTIRALA 17 IBILBIDEA IRRISTAILUETAN

18:00 - 20:00 - AREETAKO GELTOKIA PLAZA

Jantzi irristailuak eta parte hartu Getxoko kostaldetik igaroko den ibilbide batean, **Getxo Irristan klubaren** eskutik. Amaitzean, proba-zirkuitu bat antolatuko dugu.



Euria egiten badu, San Nikolas plazan egingo da jarduera

BIZIKLETA-AZOKA

16:00 - 20:00 - ALGORTAKO GELTOKIA PLAZA

Saldu edo erosi bigarren eskuko bizikletak edo mugikortasun jasangarriarekin lotutako bestelako objektuak (patineteak, irristailuak, osagarriak...).

GAUEKO IBILBIDEA BIZIKLETAZ

21:30 - 23:30 - GALEAKO APARKALEKUA

Gaueko irteera gidatua, maila guztietako bizikleta zaleentzat. Ibilbidea Galean eta Azkorrin barrena abiatuko da, inguruneaz gozatzeko eta zentzumenak aktibatzen.

LARUNBATA 18 PLOGGING GETXO

10:00 - 12:00 - AIXERROTAKO ERROTA

Kirola eta ingurumenarekiko maitasuna uztartzearen emaitza da **plogging-a**.



FAMILIA-IBILBIDEA BIZIKLETAZ

11:00 - 12:30 - BIZKAIA ZUBIA



Familia-ibilbidea bizikletaz, **Sare SolidaridUP** proiektuak antolatua eta **Zabalketa GKEak** koordinatua. Jarduerak ingurumenarekiko errespetua sustatzea eta hiri-espazio bizigarriagoak eta gizatiarragoak eraikitzea du helburu.

BIZIKLETA-AZOKA

16:00 - 20:00 - AREETAKO GELTOKIA PLAZA

Bizikletak edo mugikortasun iraunkorarekin lotutako bigarren eskuko bestelako objektuak **erosten eta saltzen jarraituko dugu**.

IGANDEA 19 MENDI-IBILBIDEA

09:00 - 12:00 - ALGORTAKO GELTOKIA PLAZA

Parte hartu Getxoko mendietan barrena doan ibilbide zirkular batean, **Itxartu Taldearen** eskutik.



ASTELEHENA 20tik ASTEAZKENA 22ra PEDALEI ERAGITEN IKASI

18:00 - 19:00 - EVARISTO CHURRUCA KAIA

Bizikletaz ibiltzen irakatsiko dizugu! Helduentzako bizikletak eskuragai egongo dira. Gutxieneko adina: 8 urte. 16 urtetik beherakoek kaskoa eraman beharko dute.

ASTELEHENA 20

18:00 - 20:00
AREETAKO GELTOKIA PLAZA

ETA ASTEAZKENA 22

18:00 - 20:00 - ALGORTAKO GELTOKIA PLAZA

"BIZIKLETAREN OINARRIZKO MEKANIKA" TAILERRA
Tailer honen helburua bizikleten funtzionamenduari buruzko oinarrizko ezagutzak partekatzea da, gerta daitezkeen gorabeherei aurre egiten ikasteko.

Astelehenean (hilak 20) eta asteazkenean (22) bizikleta elektrikoaren postu bat egongo da tailerraren ondoan, bizikletak probatzeko eta Getxotik bueltatzea emateko.

Euria egiten badu, San Nikolas plazan egingo da jarduera

IGANDEA 19 AUTORIK GABEKO EGUNA OSPATZEN (11:00 - 14:00h. eta 17:00 - 20:00h.)

KALE NAGUSIA (AREETA)

- **KART-AK ETA AUTOAK PEDALEKIN:** Kaleak gidari txikienezko zirkuitu bihurtuko dira.
- **ZUREZKO JOKOAK:** Logika-jokoak, adimen-jokoak, zorizko-jokoak, punteria-jokoak eta askoz gehiago. Joko pila bat, parte-hartzaile guztien gozameneko.
- **OHE ELASTIKOAK:** Jolas ezin dibertigarriagoa izateaz gain, kirola egiteko aukera ematen digute ohe elastikoak.

TELLETXE KALEA (ALGORTA)

- **3 GURPILEKO PATINETE-ZIRKUITUA:** la publiko guztientzat egokia da patinete mota hau. Zatoz probatzera!
- **GOLF-PISTAK:** minigolf-pistak publiko guztientzat egokiak dira, espazio berean aisia, dibertsioa eta lehiakortasuna biltzen baitituzte.
- **OHE ELASTIKOAK:** Etxeko txikienen abentura gogokoena ezin zen falta hemen: salto egitea!

Joko eta jolas hauen gain, beste hainbat jarduera antolatu ditugu Getxoko elkarte, **GKE, klub eta kirol-enpresen** eskutik. Eskerrak ematen dizkiegu haien laguntza eta parte hartzeagatik:

- Bide-segurtasuneko zirkuitua eta flota-erakustaldia, **Gurutze Gorria**
- Informazioa-postuak eta puxiken banaketa, **Asperxu Asperger eta TEA Bizkaia elkarteak**
- Sentsibilizazio-jarduerak **ASEBIER** elkartearen eskutik, **Euskadiko Gaixotasun Arraroen – Arantza Bifidoa eta Hidrozefalia – elkartea**
- Pilates eta jarrera osasuntsuen aldeko erakustaldiak, **Irie Pilates eta entrenamendu funtzionala**
- Patin-hockeya, **Getxo Irristan**
- Patinaje artistikoa, **"Show Getxo" patinaje-kluba**
- Gimnasia erritmikoa, **Getxo Erritmikoa Kluba**
- Zama-bizikletentzako zirkuitua, **Ciclos Olabarrieta**
- Parkour: hastapen saioa, **Indarrez parkour** eta mugimenduen arteen eskolaren eskutik.
- Auto elektrikoaren erakusketa (**Toyota - Japan Car kontzesionario ofiziala**)...



IBILGAILUEN ZIRKULAZIO ETENAK ALGORTAN ETA AREETAN:

Irailaren 19an, igandea, 8:00etatik 20:00etara, ibilgailu pribatuaren zirkulazioa eta aparkamendua mugatuta egongo da Algorta eta Areetako erdiguneetako hainbat kaletan. Garajeetatik ibilgailuak ateratzea bakarrik baimenduko da kale hauetan. Murrizketek ez dute eraginik izango garraio publikoan eta alde zehar Getxoko Udalaren baimena duten establezimenduen ibilgailuetan. Eskerak: ingurugiroa@getxo.eus

Mesedez, zure ibilgailua kendu aipatutako kaleetatik antolatutako jarduerak ez oztopatzeko. Garabiak gune hauetan aparkatuta dauden ibilgailuak kenduko ditu.

IZEN-EMATEAK:

Telefonoz: **605 74 90 64. (09:30 - 17:00)**

E-postaz: getxomovilidad@gmail.com helbidean, hautatutako jarduera, izen-abizenak eta zure telefono mugikorra adieraziz. Jarduera guztiak doakoak dira.